



Artea eta espazioa

*M. Heidegger **

“Norberak asko pentsatu, egiten denean, jakituria haundia aurkitzen da hizkuntza barruan izkribatuta. dena norberak hara eramatea, ez dirudi egiantzekoa, ezpada benetan datza jakituria haundia han, atsoitzetan bezala” G. Chr. LICHTENBERG

“Baina zerbait haundia dela, dirudi, eta zaila atzemateko, toposak, hau da, leku-espazioak” ARISTOTELE, Fisika, IV. liburua

Oharrok arteaz, espazioaz, elkarren baitako bion jokoaz, galderak dira, baieztapenean forman esaten direnean ere. Arte irudiginera (plastikoetara) mugatzen dira eta, haren barruan, plastikora (eskulturara). Irudi plastikoak gorputzak dira. Haien masa, material desberdinez dago osatua; eratuta, itxura askotan egoten da. Eratzea mugatzez gertatzen da, barru eta kanpo-mugaketa gisa. Hemen sartzen da espazioa jokoan. Hori, irudi plastikoak, okupatu egiten du, bolumen itxi, puskatu, huts bezala markatu egiten du. Gorabehera ezagunak hauetxek, eta enigmatikoak halere.

* Joxe Azurmendik euskaratua

M. Heidegger

Gorputz plastikoak zerbait gorpuztu egiten du. Espazioa gorpuzten al du? Plastika, espazioaren jabetza hartze bat, espazioaren jaun bihurtze bat, ote da? Plastika, horrela espazioaren konkista tekniko-zientifikoari ote dagokio?

Arte gisa, plastika, espazio artistikoarekin da noski eztabaida bat. Arteak eta teknika zientifikoak espazioa asmo desberdinez eta modu desberdinetan begiesten eta lantzen dute.

Espazioa ordea -berbera garatzen al da hori? Ez al da, Galilei eta Newton- ez gero bere lehen determinazioa ezagutu duen espazio hura? Espazioa- he- dapan itxuraberdina, puntu posibleetako ezeintan ez nabarmendu hura, edozein aldetara balioberdina, baina zentzuen bitartez atzeman ezinezkoa?

Espazioa -bitartean gizakume modernoa geroz eta gehiago, setatiago beti, bere azken menperagarritasunera desafiatzean duena? Arte irudigin modernoa- ak ere ez al dio jarraitzen erronka horri, berak ere bere burua eztabaida bat be- zala espazioarekin ulertzen duen neurrian? Ez al da berretsita aurkitzen horre- kin bere jite orainalditarrean?

Fisiko-teknikoki proiektaturiko espazioak, haatik, gero edonola izan dadi- larik ere bera determinatua handik aurrera, balio al lezake espazio egiazko ba- kar bezala? Haren aldean, bestela atonduriko espazio guztiak, espazio artisti- koa, eguneroko ihardun eta harremanetako espazioa, espazio objetibo kosmiko bakarraren subjektiboki baldinpeturiko aitzinforma eta aldaki soilak ote dira?

Nola, ordea, unibertso objetiboaren nahitaez korrelatua baldin bada kontzientzia baten subjektibitatearena, berau berriz ezohizkoa bazitzaien Aro Moderno europarra baino lehen mende guztiei?

Espazio-esperientziaren bestelakotasuna ohartzen badugu ere iragandako aroetan, ikuspen bat lortzen al dugu horrekin espazioaren propiotasunean? Ho- rrekin ez da, espazioa zer den espazio gisa, galdera galdetu, zer esanik ez, erantzun. Erabaki gabe geratzen da, zein modutan espazioa den, eta izaterik ba- tere aitortu ahal ote dakioken hari.

Espazioa -fenomeno lehentiarra ote da (*Urphänomen*), horiek ohartzera- koan (*gewahrwerden*), Goetheren esaldi baten arabera, gizona izu antzeko ba- tek harrapatzen omen bait du angustiarainokoak? Espazioaren atzean, izan ere, hala ematen du, beste ezer ez dago, hartara bihurtu ahal izateko hura. Ha- ren aurrean ez dago aldarapenik beste zerbaitetara. Espazioaren propioak, be- rak behar du bere baitatik burua agertu. Esan egiterik ba ote dago, orduan, ha- ren propioa?

Honela galdegiten aritu behar izate honetatixe, aitorten bat esijitzen zaigu:

Espazioaren propioa experimentatu egiten ez dugun artean, ilun geratzen da espazio artistiko batez mintzoa ere. Anartean, espazioak arte-obran barrena nola diharduen, modua, indeterminazioan zintzilik dago.

Artea eta espazioa

Espazioa (I), non eta irudi plastikoa haren barruan idoro litekeen objektu hantxe egoile baten antzera; espazioa (II), figuraren bolumenek inguratzen dutena; espazioa (III), bolumenen artean hutsa bezala dirauena, hiru espaziook, bata-bestearen baitarekiko beren jokoaren batasunean, beti ere ez al dira espazio fisiko-tekniko bekarraren eratorkin soilak, nahiz eta kalkulozko neurketak ez eduki partehartzerik eraketa artistikoan?

Behin aitortu emanez gero, artea, egia obran jartzea dela, eta egiak izatearen estalgabetasuna esan nahi duela (*Unverborgenheit*), ez ote du orduan egiazko espazioak, bere propioena desestaltzen duenak (*entbirgt*), arauemaile izan behar arte irudigineko obran ere?

Nola aurki genezake, ordea, espazioaren propio berezi hori? Larri-zidor bat badago, herxutuxoa bada ere, hori bai, eta aiko-maikotsu askoa. Hizkuntzari entzutea, egingo dugu proba. Zertaz arri da hitzegiten, “espazioa” hitzean (“*Raum*”)? Hor “leku egitea” mintzo da (*räumen*, ebakuatu, lekutu, toki bat hustu). Honek esan nahi du: luberritu, basoa soildu eta libre jarri. Leku egiteak librea dakar, zabaldua, gizona bertan kokatzeko eta egoiliartzeko (habitatzeko: *wohnen*).

Leku egitea, bere-bere propioan pentsatuta, tokiak libre uztea da, giza-kume egoiliarraren zorietan bait dira bilakatzean, ala sorteri baten zoriona, ala sorterrigabearen zoritxarra, ala biekiko axolagabetasuna. Leku egitea tokiak libre uztea da, tokiotan jainko bat agertzen bait da, haietatik tokietatik jainkoak ihes egin bait zuten, jainkotasunearen argitzea halako tokietan asko luzatzen bait da. Leku egiteak egoiliartzea aldi-aldi prestatzen duen tokitasuna ematen du. Espazio profanoak beti espazio sakral maiz oso aspaldietako gabetasunak dira. Leku egitea tokien askapena da.

Lekugintzan gertakaria bat ari da mintzatzen eta une berean ezkututzen (*verbirgt sich*). Errazegi ezikusten da leku egitearen ezaugarri hori. Eta ikusten denean, ikusi, oraino txit zaila geratzen da determinatzeko, batez ere alde aurretik espazio fisiko-teknikoak balio duen bitartean, espaziozkoaren edozein ezaguarazpen hari atxeki behar zaiolako espazioa bezala.

Nola gertatzen da leku egitea? Ez ote da lekuan jartzea (*einräumen*, baimentzea orobat) eta hori, uztearen eta atontze-egokitzearen adiera bikoitzean?

Bateko, lekuan jartzeak utzi egiten du zerbait. Zabaltasunari bere ihardueran iharduten uzten dio, besteren artean horrek uzten bait du gauza presenteen agerpena, horietara dagoelarik igorrita gizonaren egoiliartasuna (habitatzeko).

Besteko, lekuan jartzeak posibilitatea egokitzen die gauzei, bakoitza bere nongoa izateko eta, hemendik hara, bata-bestearnak izateko.

Lekuan jartze bikoitz honetan gertatzen da, tokirik egon ahal izatea uztea (*Gewährnis*). Uzte hori (*gewähren*) gertaera haren karakterea da.

M. Heidegger

Zer da, alabaina, tokia, izan, haren propioa lekuan jartze liberatzailearen hariari jarraiki determinatu behar baldin bada?

Tokiak aldian-aldian eskualde bat zabaltzen du, gauzak beren elkarrentasunaren arabera elkartuz haren barruan.

Elkarretaratzeak, tokian, gauzak beren eskualdean liberatuz gordetzearen (*bergen*) zentzuan jokatzeko du.

Eta eskualdea (*Gegend*)? Hitzaren forma zaharrenak "*Gegnet*" dio. Hedadura librea adierazten du. Horren bitartez, zabaleroa beharturik dago gauza bakoitzari uztera, bere (zabaleroaren) baitako haren oinarripenean agertzen. Honek, ordea, esan nahi du aldi berean: gordetasuna (*verwahren*), gauzen elkartasuna beren elkarrenganakotasunean.

Higitzen hasten da galdera: lekuan jartzearen emaitza eta ondoriotza bakarrik al dira tokiak? Ala lekuan jartzeak berak bere propioa, toki elkartarazlearen ihardunetik hartzen du?

Zuzena hori balitz, leku egitearen propioa tokitasunaren oinarripenean (*Gründung*, sorpena orobat) bilatu beharko genuke, tokien arteko elkarjokoa bezala ulertu beharko genuke tokitasuna.

Joko honek, gauzen elkarrenganakotasunera igorpena hartu, eskualdearen hedadura libretik hartzen duela, eta hartu ere nola hartzen duen, beharko genuke kasu egin.

Gauzak berak tokiak direla eta ez bakarrik tokiren bati dagozkionak, beharko genuke ezagutzen ikasi.

Kasu honetan, gertaera estraino bat onartzera behartuak aurkituko ginateke denboraldi luze batetarako: tokia ez dago, aldez aurretik emaniko, espazio fisiko-teknikoaren gisako, ezein espaziotan. Berau da, eskualde bateko tokien ihardueratik, eratortzen dena.

Artearen eta espazioaren arteko jokoa bata-bestearen baitan, tokiaren eta eskualdearen esperientziatik beharko litzateke pentsatu. Artea plastika bezala: espazioaren jabetza hartzerik ez batere. Plastika (eskultura) ez litzateke espazioarekin eztabaidarik batere.

Tokien gorpuzketa litzateke plastika, horiek, eskualde bat zabalduz eta gordez, libreune bat elkarganatzeko bait dute beren inguruan, aldian aldiko gauzei egonaldi bat (*verweilen*) eta gizonari egoiliartze bat utziz (*wohnen*) gauzoen erdian.

Horrela baldin bada, zer argituko da, aldian-aldian toki bat gorpuzten duen irudi plastikoaren bolumenarekin? Seguraski ez ditu jadanik espazioak mugatuko elkarri buruz-buru, horietan superfiziek azalek barru bat kanpo bati buruz-buru biltzen dutela. Bolumen izenarekin izendatzen denak, izena galdu egin beharko luke, esanahia bera ez bait du natur-zientzia modernoa baino zaharragoa.

Artea eta espazioa

Izenik gabe geratuko lirateke, oraingo, gorpuzpen plastikoaren ezaugarri tokien bilatzaileak eta tokien irudiginak.

Eta zer gertatuko litzateke espazioaren hutsarekin? Maiz asko, gabetasun bat bezala ageri ohi da. Hutsak, orduan, zuloko edo tarteko espazioen bete-gabetasuna adieragin ohi du.

Seguraski, ordea, tokiaren propioaren senidea da hutsa eta, beraz, ez falta, baina ekoizpena. Keinu bat, berriz ere, hizkuntzak eman diezaiguke. *Leeren (hustu)* aditzean *lesen* mintzo da (*irakurri*, bildu orobat), honen jatorrizko elkarganatze-biltze esanahian, tokian diharduen hori alegia. Edalontzia husteak esan nahi du: bere libre bilakatuan bezala elkarbiltzea edukilea. Fruta bilduak (*auflesen*) otzarera husteak esan nahi du: haientzat leku horixe prestatzea. Hutsa ez da deusez. Ez da gabetasuna ere. Gorpuzpen plastikoan hutsak, lekuen fundazio bilatzaile-proiektatzailearen eran jokatzen dihardu.

Aurreko oharrok ez dira ziurki iristen, plastikaren (eskulturaren) propioa, arte irudiginaren espezie batena legez, nahikoa gardentasunez marraztera. Plastika: gorpuztuz tokiak obran-jartze bat eta, haiekin, eskualdeak zabaltzea, gizonen egoiliartze posiblearenak, berauek inguratzen eta berauei doazkien gauzen egonaldi posibleenak.

Plastika: izatearen egiaren gorpuzpena bere obra tokien fundatzailean.

Begirada zuhur batek soil, arte honen propioan, jada sumarazten du, egia, izatearen estalgabetasuna bezala, ez dagoela derrigor gorpuzpenaren behardun.

Esaten du Goethek: “*Ez da beti beharrezkoa, egia gorpuztu dadin; nahikoa da inmaterialki hegaldatzea eta adostasuna eragitea, aireetan kulunkatzea, kanpai-doinu serio-adiskidetsuaren maneran*”.